

# JOANES ETXEBARRI (XVII GIZALDIA)

Joanes Etxebarri idazlearen eskutik sartzen gara XVII gizaldira eta gizaldi onetan euskereak iparraldean izan eban lora-aldia.

Abade zan, Ziburu'n jaioa eta bertan artzain izana 1637n. urtera arte, baiña ez dakigu zein urtetan jaio eta zeinetan il zan.

Gizon jakintsua izan zan, maixua edo "doktor", teologoa.

Iru liburu idatzi ebazan: 1) Manual debozinezkoa. Au 1627n. urtean agertu zan eta Kristo'ren bizitza eta otoi-tzak dakaz. 2) Noelak:1631n. urtean argitaratua da eta lau zati ditu:a)Kristoren aurreko agintzak edo igarleen esanak. b)19 noel edo gabon-abesti. d)Kristo'ren bizitza amasei kantutan eta

e) Jainkoaren eta santuen omenezko kantak. Loiola'ko Ignazio'ri eskerrak emonez amaitzen dau liburua. 3) 1636, Eleizara erabiltzeko liburua

Iurak dira bertsoz egiñak eta gaia beti da Kristo edo Andra Maria edo kristiñau-bizitza.

Ikusten da zarra dala bertsoz idazteko oiturea, bai euskeraz eta bai erderetan.Bertsoz ez dagoana ez eben uste elertia zanik, gaiñera orrelan abesteko erreztasuna sortzen da.

Ona zelan diñon berak zergaitik bertsoz idazten dauan:

"Giristinoa, eman diat eskara bertsoan  
katoliko manuala neure asti-ordutan.

Ikusirik, nola bainaiz iaioztez eskalduna,  
gure nazioa dela koplamaite duena,  
hartarakotz iakiaraz diat bertsoz ezarri:  
lasterrago ikhas eta maizago aiphagarri"

Era askotara egiten dira bertsoak antxiñatik, baiña geien erabilliak zortziko nagusia (1-3-5-7<sup>a</sup> amar silabakoak erdian etenagaz eta 2-4-6-8 zortzi silabakoak) eta zortziko txikia (8/7) izan dira.

Berak dana bertsoz idatzi eban, baiña tokiren baten zerbait itz lauz idatzita aurkitu dautsoenak diño obeto idazten dauala itz lauz.. Bere gizaldiko idazleen artean trebeena ta ugariena da.

Garibai'k eta Etxabe'k euskerea jakiñik erderaz idazten dabelako burla egiten dautse:

"Burlatzen naiz Garibaiez,

bai alaber Etxabez,

zeñek mintzatzen baitire

erderazEskaldunez.

Ezen zirenaz gerotik,

Eskaldunak hek biak,

Eskaraz bear zituzten

Egin bere historiak"

Olako euskal-zaletasuna bear leukee gaur be idazle askok

Olazar'tar Martin'ek

## OGIA

Garitz eder bat dago  
etxe-ziro azpiko  
solo zabaluan,  
zerua urdin dago,  
eguzkiaz onduta,  
beren ederrian.

Egunik egunera garitza edertzen da  
argitasunera,  
galburu mamintsuak  
urretuten doazi  
argien erara.

Etxeko ugezaba,  
pozez, beterik dado soloaren aurrez,  
igetaiak gerturik,  
gogoak indartuta,  
garitzaren pozez

Martitzen egun eder,  
ordu onian dator  
eguzki argiaz,  
aupa, mutil jatorrak,  
gaur, etxera doazi  
garau ederrenak.

Ama gerturik dago,  
laba-sua eginik,  
ogi erretako,  
biar, ogi zuriak  
maian egongo dira  
gure bizirako.

Egiz, ogi zuriak,  
giro onian dagoz  
bazkari orduan,  
goira gure garitza,  
gora laba-su eder  
maiaren onduan.

Paulin